


## Nudismo egiteko eskaera Udalean

Euskal Naturalisten Elkarte (ENE) harremantetan da udal ordezkariekin Donostiako hondartzetan nudismoa egiteko leku bat aldarrikatzeko. Jose Mari Cristobal Donostiako ENEko kidearen hitzetan, "dagoeneko hitzordua eskatu dugu udal ordezkariekin gaia eztabaidatzeko. Dena dela, bilera noiz egingo den oraindik zehazteke dago. Gaia ez lutzatzea espero dugu". ENEko kideen helburua, datorren udarako Donostiako hondartzetan larru gorritan egiteko leku bat lortzea da. Elkarteko kideak horretarako leku egokiena zein izan daitekeen aztertzen ari dira: uhartea, Zurriola, Kontxa, Ondarre-ta... Hala ere, ENEko kideek argi dute gaiak zeresan ugari sortuko duela hirian.



## Abegi Etxea Marrutxipira

Joan den ostiraléan, Udal Gobernu Batzordeak Donostiako Abegi Etxe berria Marrutxipin eraikitzeko behin betiko proiektua onartu zuen. Osoko bilkuran proiektua gauzatzeko beharrezkoa den aurrekontua aldatu ondoren, lanon esleipena egingo da. Abegi Etxe berriak 40 toki izatea aurreikusitako da, egungoak baino 20 toki gutxiago. Orain arte, zerbitzua San Bartolome gainan egon da, baina lekuz aldatzea aurreikusitako da, inguruan hirigintza proiektu bat egiteko. Jakina denez, iaz epaitegiak bertan behera utzi zuen San Bartolomeko proiektua, baina Udalak helegitea aurkeztu zuen. Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak argi du zonaldean esku hartu behar dela, eta bere hitzetan, "aurreikusitako egitasmoa egin ezin bada, beste aukeraren bat aztertu beharko dugu. Dena dela, San Bartolome esku hartzeko Abegi Etxea lekuz aldatzea beharrezkoa zen."



## Hitz eta pitz

### Euskaraz eta Donostiaz

Koldo Izagirrek Donostia hiri bat literaturan. Literatura baten hiria liburuaren kaleratu berri du. Aste honetako Argia aldizkarian eginiko elkarrizketan dioenez, *Donostia eta euskara lotura natural bat da. Kardaberaz Euskararen berri onak liburuan bi diskurtso desberdinen ereduaz azaltzen da: andre bermeotarrarena eta andre donostiarrena. Beraz, Donostiak bazeukan eredu linguistiko bat Euskal Herriari erakusteko modukoa, berezia, graziaduna eta euskararen baliabide guztiak erabiltzen zituena. Izagirreraren arabera, geroztik hori ez da eten, eta bere hitzetan, hiri honen kontzientzia euskaraz garatu da.*




"Donostia. Hiri bat literaturan. Literatura baten hiria" liburuaren 10 ale ditugu zozketatzeko

Lehiaketan parte hartzeko, galdera honi erantzun behar diozu: liburuaren batean topatu al duzu zure begietako Donostia?

Erantzunak urriaren 14a baino lehen igorri behar dira gutunez (Pedro Egana 2, 1. Eskua 20.006 Donostia) edo posta elektronikoz (irutxulo@bagera.net). Erantzunetan zuen izen-abizenak eta telefonoa jarri behar dira.

Irabazleen izenak urriaren 18an jakinaraziko dira.



**LEHIAKETA**